

3/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025EKO MARTXOAREN 12AN EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia(EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025eko martxoaren 12an, goizeko 9:04etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko premiazko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

1.- EZOHICO BILKURARAKO DEIA PREMIAZ EGIN IZANARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak hitza hartu du eta Osoko Bilkura honen premiazko eta ezohiko izaeraz egiteko arrazoiak azaldu ditu.

Batetik, 2025eko urtarrilaren 29ko 18. Gipuzkoazko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Kontu Orokorra, Batzorde horren txostenarekin batera, jendaurrean jarri zen, interesatuei hamabost egun balioduneko epea emanez erreklamazioak, eragozpenak zein oharra aurkezteko. Adierazitako epean ez da jaso ez erreklamaziorik, ez eragozpenik, ezta oharrik ere. Horiek horrela, 2025eko martxoaren 10ean, Kontuetarako Batzorde Berezia, aho batez, erabaki du Udalbatzari 2023 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzeko proposamena egitea. Hala ere, kontuan izan behar da Herri Kontuen Euskal Epaitegia aspaldi ari zaizkigula 2023ko Kontu Orokorrak erreklamatzeko, azken epe gisa martxoaren erdialdea emanez; izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62.4 artikulua arabera, Kontu Orokorrak 2024ko uztailaren 31 baino lehen aurkeztu behar zitzaizkion Udalbatzaren Osoko Bilkurari.

Bestetik, Anoetako Udaletxeko eraikinaren birgaitze eta eraberritze energetikoaren obrak egiteko kontratazio-prozedura dagoeneko esleitu da eta enpresa esleipendunarekin kontratua sinatu da. Obraren exekuzioarekin hasi baino lehen,



kontratistak Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Plana aurkeztu du eta Udalak kontratatutako segurtasun eta osasun koordinatzaileak horren gaineko onarpen aurretxostena egin du. Hortaz, orain udal kontratazio-organoari dagokio enpresa esleipendunak egindako eta segurtasun eta osasun koordinatzaileak onetsitako Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Plana onartzea. Obra horiek, jakina den bezala, dirulaguntza bati daude lotuta (EEEko zuzendari nagusiaren 1210601-2021 ebazpenaren bidez erabaki zen dirulaguntza hori ematea), baita baldintzatuta ere: besteak beste, jarduerak 2025eko abuztuaren 2ko data baino lehen amaitu eta fakturatu behar dira. Obra gauzatzeko aurreikusitako epea 7 hilabetekoa dela kontuan hartuta, premia berezia du obraren exekuzioarekin hasteak.

Horiek guztiak kontutan hartuta, 2023ko Kontu Orokorraren eta Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Planaren onarpena ezin da atzeratu hurrengo ohiko bilkurara, ezta premiazkoa ez den hurrengo ezohiko bilkura batera ere; izan ere, Idazkari Kontu-hartzaileak ez da lanera etorriko aste honetako ostegun eta ostiralean eta, beraz, premiazko izaerarik gabeko ezohiko bilkura datorren astera arte atzeratuko litzateke.

Behin Alkateak ezohiko bilkurarako deialdia premiaz egin izanari buruzko arrazoiak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Berrestea ezohiko Osoko Bilkura honen deialdiaren premiazko izaera.

Behin Udalbatzak ezohiko Osoko Bilkuraren premiazko izaera berretsita, Alkatearen aginduz bilerari hasiera eman zaio, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

2.- 2023 EKITALDIKO KONTU OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2025eko martxoaren 10ean, Udal Ogasun eta Kontuetarako Batzorde Bereziak honako irizpen hau eman zuen:

“...

Kontuetarako Batzorde Bereziaren lehendakariak azaldu die bertaratutakoei: batetik, 2025eko urtarrilaren 29ko 18. Gipuzkoazko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Kontu Orokorra, Batzorde horren txostenarekin batera, jendaurrean jarri zela; bestetik, interesatuei hamabost egun balioduneko epea eman zaiela erreklamazioak, eragozpenak zein oharra aurkeztu ahal izateko; azkenik, adierazitako epean ez dela jaso ez erreklamaziorik, ez eragozpenik, ezta oharrik ere.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Kontuotarako Batzorde Bereziak, aho batez, Udalbatzari honako akordioa proposatzea erabaki du:

ERABAKI DU

Lehenengoa. 2023 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

Bigarrena. Kontu Orokorra eta hura osatzen duen dokumentazio guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizaziora bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuotarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2023 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

BIGARRENA. Kontu Orokorra eta hura osatzen duen dokumentazio guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizaziora bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

3.- “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” IZENEKO PROIEKTU TEKNIKOA GAUZATZEKO OBRA-KONTRATUAREN BAITAN (2024KAPI0004), LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta “Anoetako Udaletxeko eraberritze energetikoa” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obra-kontratuaren (2024KAPI0004) aurrekariak azaldu ditu, besteak beste, azkeneko Osoko Bilkuratik hona gertatutakoak gailendurik:

- Udalbatzak, 2025eko otsailaren 25ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste,

“ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obra-kontratua UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. (B75002162) enpresari esleitzea ebatzi zuen, horrek aurkeztutako eskaintzaren eta kontratazioa arautzen duten Baldintza Administrazio eta Tekniko Berezien Agirietan zehazten diren baldintzetan.

- 2025eko martxoaren 5ean UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, S.L. enpresarekin kontratua formalizatu zen.

- 2025eko martxoaren 6an, 427. sarrera-erregistro zenbakiarekin, enpresa esleipendunak ondorengo dokumentuak aurkeztu zituen: hondakinak kudeatzeko plana, Laneko Segurtasun eta Osasun Plana (Ainhua Urbizu Urreagak, Servicio Prevención Ajeno



PREMANK, S.L. enpresako arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikariak, egindakoa) eta azken horren gainean obraren exekuzio faseko Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak (Jason Lekuona Alonso) egindako aldeko aurretxostena.

- 2025eko martxoaren 7an, udal arkitekto teknikoak txostena egin zuen, enpresa kontratistak aurkeztutako eta obraren exekuzio faseko Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak onetsitako Laneko Segurtasun eta Osasun Plana onesten zuena.

Kontuan hartuta, besteak beste, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak, 7.2. artikuluko bigarren lerrokadan xedatutakoa, alegia, “Administrazio publikoen obren kasuan, obra esleitu duen administrazio publikoari igorriko zaio plana, obra egin bitartean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen txostenarekin batera, hark onar dezan”.

Kontuan hartuta Anoetako Udaleko Udalbatza dela goian adierazitako kontratazio-prozedurako kontratazio-organoa eta, beraz, berari dagokiola Laneko Segurtasun eta Osasun Plana onartzea.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Laneko Segurtasun eta Osasun Plana, Unebide Obras y Contratas, S.L. enpresa kontratistak aurkeztutakoa, Ainhoa Urbizu Urreagak, Servicio Prevención Ajeno PREMANK, S.L. enpresako arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikariak, egindakoa, eta “Anoetako Udaletxeko eraberritze energetikoa” izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko obraren exekuzio faseko Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak (Jason Lekuona Alonsok) bere aurretxostenean onetsitakoa.

BIGARRENA. Ebazpen hau jakinaraztea udal arkitekto teknikoari, Unebide Obras y Contratas, S.L. enpresari eta Jason Lekuona Alonsori.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko goizeko 9:15etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino